

## Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna Duintasuna hiltzerakoan

Azaroaren 2an heriotza duinaren eguna ospatzen da, eta horrek DMD-DHE elkartearen ustetan pertsona bakoitzak hautatutako heriotza da heriotza duina, norbanakoaren askatasunaren adierazpen goren.

Eutanasiako Legea (LORE) gizarte zibilaren konkista bat izan da, guk defendatzen dugun askatasunerako bidean, erakunde erlijiosoen eta zenbait alderdi politikoren (PP eta VOX, esaterako) erresistentzia gaindituz, Konstituzio Auzitegiaren aurrean bertan behera uzteko egindako saiakera ezerezean geratu delarik.

Lorpen garrantzitsua izan arren, legea gure elkartearen helburutik urrun geratzen da, izan ere, hainbatetan esan dugun ildotik, gure helburua da pertsonak erabateko autonomia izatea nola hil nahi duten erabakitzeke.

Alde horretatik, uste dugu lege horrek gabezi nabarmenak dituela, eta, berandu baino lehen, zuzendu egin behar direla, Hauek dira, besteak beste, gabeziak:

- Kontrolatzaileegia eta burokratikoegia da (lau filtro eta 40 egun baino gehiago eutanasiarako eskubidea gauzatzeko).
- Behin onartuta aplikatzeko epemugarik aurreikusten ez den arren, Ministerioaren Bidezko Praktiken Gidak gehienez ere bi hilabeteko epea gomendatzen du prestazioa egiteko, eta hori onartezina iruditzen zaigu. Pertsona bakoitzak, Batzordearen onespena lortu ondoren, prestazioaren eguna inolako mugarik gabe erabaki ahal izan behar du.
- Diagnostiko psikiatrikoa duten pertsonak diskriminatu egiten dira eskubide horretan, gaixotasun horietako askok legearen eskakizunak betetzen dituzten arren.

## Día Internacional de la Muerte Digna Dignidad en el morir

El 2 de noviembre se celebra el día de la muerte digna que, para nuestra asociación DMD-DHE, es la muerte elegida por cada persona, expresión máxima de libertad individual.

La Ley de Eutanasia (LORE) ha sido una conquista de la sociedad civil en el camino hacia esa libertad que propugnamos, frente a las resistencias de las instituciones religiosas y de algunos partidos políticos (como el PP y VOX) que han intentado, sin éxito, que el Tribunal Constitucional la anulara.

A pesar de ser una conquista, queda lejos del objetivo de nuestra asociación, que no es otro que, como ya hemos señalado, la plena autonomía de la persona a la hora de decidir cómo morir.

En este sentido, consideramos que dicha ley tiene insuficiencias que, más pronto que tarde, deben ser eliminadas, y entre las que señalamos las siguientes:

- Es demasiado controladora y burocrática (Cuatro filtros y más de 40 días para que sea efectivo el derecho a la eutanasia).
- Aunque la ley no prevé la existencia de una fecha límite para su aplicación, la Guía de Buenas Prácticas del Ministerio aconseja un plazo máximo de dos meses para realizar la prestación, lo cual nos parece inaceptable. Cada persona, una vez obtenida la aprobación de la Comisión, debe poder decidir la fecha de la prestación sin ninguna limitación.
- Las personas que tienen un diagnóstico psiquiátrico son discriminadas en este derecho, aun siendo enfermedades que, en muchos casos, responden a las exigencias de la ley.

- Batzuetan, LORE aplikatzea kontraesanean dago tratamenduari uko egiteko eskubidea jasotzen duen legearekin, hura onartzeko aukera terapeutikoak agortzea eskatzen baita.
- Eskaera tramitatu behar dutenen interpretazioari uzten dio “sufrimendu onartezina” zer den erabakitzea, erabaki hori subjektiboa denean, jasaten duen pertsonarena hain zuzen.

EA Eri dagokionez, tamalez erkidegoan gertatzen ari diren hutsuneak ezin ditugu aipatu gabe utzi. Izan ere, LORE abian jartzen aitzindari izan arren, oso gutxi egin da garatzeko. Berdin gertatzen da uztailaren 8ko bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko legearekin. Hutsune nabarmenenak hauek dira:

- Mingarriena eta agerikoena, zalantzarik gabe, informazio gabezia da, herritarrek oso informazio gutxi baitute bizitzaren amaieran dituzten eskubideei buruz, eta, zehazki, LORE legea eta Aurretiazko Borondateen Dokumentuen (ABD) inguruan. Horrek, gainera, agerian uzten du ez dela aintzat hartzen legeak berak agintzen duena zazpigarren xedapen gehigarrian: “Osasun-administrazio eskudunek behar diren mekanismoak jarriko dituzte abian lege hau ahalik eta gehien zabaltzeko profesional sanitarioen eta, oro har, herritarren artean, bai eta aurretiazko jarraibideen agiria egitea sustatzeko ere haien artean.”
- Konpromiso faltagatik edo profesionalen ez-ezagutzagatik arretarik gabe geratzen diren eskaerak.
- Gabeziak osasun-langileen prestakuntzan.
- Kasu batzuetan, komunikazio gutxi, edo batere ez, pertsona eskatzailearekin eta bere senideekin, eutanasia-prozedura hasten denetik aurrera.

- La aplicación de la LORE entra, en ocasiones, en contradicción con la ley que recoge el derecho a rechazar el tratamiento, porque exige para su aprobación agotar las opciones terapéuticas.
- Deja a la interpretación de quienes deben tramitar la solicitud la consideración de qué es un “sufrimiento intolerable”, siendo, como es, algo que pertenece a la persona que lo padece, es decir, subjetivo.

Por lo que respecta a Euskadi, lamentamos tener que señalar las deficiencias que están teniendo lugar en nuestra comunidad que, habiendo sido pionera en la puesta en marcha de la LORE, ha hecho muy poco por su desarrollo, así como por los derechos que se recogen en la Ley 11/2016, de 8 de julio, de garantía de los derechos y de la dignidad de las personas en el proceso final de su vida, mostrando deficiencias como las siguientes:

- Sin duda la más flagrante y dañina para la ciudadanía es la escasa, por no decir nula, información a la sociedad de sus derechos al final de la vida y concretamente de la LORE y del Documento de Voluntades Anticipadas (DVA), lo que, además, supone ignorar los mandatos de la propia ley que obliga, en su disposición adicional séptima, a habilitar “los mecanismos oportunos para dar la máxima difusión a la presente Ley entre los profesionales sanitarios y la ciudadanía en general, así como para promover entre la misma la realización del documento de instrucciones previas”.
- Solicitudes que no se atienden por falta de compromiso o por desconocimiento de las profesionales.
- Deficiente formación del personal sanitario.
- En algunos casos, poca o nula comunicación con la persona afectada y con sus familiares cuando se inicia un procedimiento de eutanasia.

- Eskaera batzuk tramitatzeko gehiegizko denbora (45 egun baino gehiago). Horrek larritasun eta ziurgabetasun handia dakarkio eskatzaileari batez ere, baina baita senideei ere.
- Egindako eutanasiaren portzentajea nahiko baxua da eskatutakoekin alderatuta (%31). Arrazoiak ez dira argitzen eskura dagoen informazio ofizialean.
- ABDak betetzeko tramitazioari begirako baliabide eskasak, atzerapenak eraginez informazio- eta erregistro-sisteman.
- Ez da Heriotza Duinaren Behatokia sortu; Nafarroa, Asturias edo Katalunian, berriz, bai.
- Ez da egin bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko uztailaren 8ko 11/2016 Legeak eskatzen duen betetzeari buruzko azterketa, bi urtean behin egin beharrekoa.
- Excesivo tiempo en la tramitación de algunas solicitudes de eutanasia (más de 45 días). Esto se traduce en una gran angustia e incertidumbre, sobre todo para la persona solicitante, pero también para sus familiares.
- El porcentaje de eutanacias realizadas en relación con las solicitudes es bastante bajo (31%), sin que la información oficial disponible clarifique suficientemente los motivos.
- Escasa dotación para cumplimentar los DVA, lo que provoca retrasos en el sistema de información y registro de los mismos.
- No se ha creado el Observatorio de la Muerte Digna, a diferencia de otras comunidades como Navarra, Asturias o Catalunya.
- No se ha realizado, cada dos años, el estudio acerca del cumplimiento que exige la Ley 11/2016, de 8 de Julio, de garantía de los derechos y de la dignidad de las personas en el final de la vida.

Gure ustez erakundeak ez dira behar bezala inplikatu ari hiltzearen kalitatea hobetzeko; izan ere, guztion patu saihestezina izan arren ez dirudi gobernatzen eta ordezkatzeko gaituztenen proiektu politikoetan lekurik duenik.

Gizarteari dei egiten diogu LOREN jasotako eskubideak aldarrikatzera; izan ere, Ramon Sampedro (bere heriotzaren 25. urteurrena bete da aurten) bezalako pertsonen ahaleginari eta adibide pertsonalari esker eskura ditugu eskubide horiek.

Consideramos que las instituciones no se están implicando como debieran en la mejora de la calidad del morir que, siendo como es el destino ineludible de todas, no parece ocupar ningún lugar en los proyectos políticos de quienes nos gobiernan y nos representan.

Llamamos a la sociedad a exigir los derechos recogidos en la LORE, a los que podemos acceder gracias al esfuerzo y al ejemplo personal de personas como Ramón Sampedro, de cuyo fallecimiento se ha cumplido este año el 25 aniversario.